

LABek Lan Ikuskaritzari eskatu dio AZPren jarduera presentzialera itzultzea gelditzeko

LABek UPV/EHUn duen atal sindikalak salaketa aurkeztu zuen atzo goizean Bizkaiko Lan Ikuskaritzan. Bertan, **eskatzen dugu unibertsitatearen AZPk jarduera presentzialera itzultzea geldiaraztea**, harik eta salatutako eskubide-urraketak konpontzen diren arte eta langileen osasunerako eta segurtasunerako eskubidea modu eraginkorrean bermatzen den arte.



EHUko LABen aldarrikapenak aurrez aurreko lanera itzultzeko. Argazkia: LAB

Salaketan, SARS-CoV-2 birusak eragindako pandemiaren ondorioz hartutako hainbat erabaki gogoratzen ditugu, eta hartutako erabaki gehienak sindikatu eta lan-osasun ordezkarien zein Lan-Segurtasun eta Osasun Batzordeen alde aurretiko parte hartzerik eta ezagutzarik gabe jarri direla indarrean salatzen dugu.

Era berean, Gerentziari eskatutako hainbat informazio ere ukatu egin zaigula adierazten dugu eta, bide batez, salatu egiten dugu Administrazioak sortarazitako nahasmena langileen artean, batzuk maiatzaren 11tik bertatik lanera joateko deituak izan baitziren, lanik ez zegoenean antolatuta.

Ilido beretik, EHUK talde kalteberetako langileekin izaten ari den jokabidea salatzen dugu, besteak beste, Errektoreak berak onartutako lehen Itzulera Planean jasotakoa ez baita betetzen ari, hots, aurrez aurreko lanera itzultzekotan, talde horietako langileak izango zirela azken txandan bertaratuko zirenak eta telelanean jarraitzeko lehentasuna izango zutenak. Hori bera salatu genuen astelehenen ere Gerentearekin izandako bilera “ez formalean”.

Aipatzekoa da, iragan asteleheneko bilera goizeko 11:30ean hasi zela eta Gerentearen azken Erabaki-proposamena 8:49an jaso genuela sindikatuetakoa kideok. Deialdia bera ere, ez zuen bete horrelako bilerak deitzeko gorde behar den aldez aurreko denbora-tartea.

Bilkuran, LABek bere ezinegona adierazi zuen guzti horregatik, eta duela gutxi publiko egin ditugun aldarrikapen nagusiak defendatu genituen. Sindikatuoi ez zitzaigun eman ezta 24 orduko epea proposamenak egiteko. Eta berriro bildu gabe, atzo argitaratu zuen EHUK Gerentearen azken Erabakia, AZPko langileak aurrez aurreko jardunera itzultzeko plana “eguneratzeko” dena.

Bilerak, hala ere, bizpahiru gauza argi geratzeko balio izan zuen: Lehenik eta behin, EHUko **Errektoreak ez duela ezelako asmorik langileon osasun egoera testeatzeko**, ez nahitaezko zerbitzuetan egondakoak, ez kalteberak diren taldeetakoak, ez aurrez aurreko jardunera itzuli beharko direnak. Gerentearen esanetan, **“behartzen ez gaituztenera arte”, behinik behin.**

Bigarrenik, **Ikastegi, Zerbitzu, Sail eta Unitate ezberdinetako berezko itzulera planak ez direla aldez aurretik jarriko lan-osasun ordezkarien esku, ezta Lan-segurtasun eta Osasun Batzordeen esku ere.** Eta plan horiek balioztatu eta onartzea, Gerentearen esku geratuko da. Beste behin ere, langileoi eta lan-osasun ordezkariari zein Batzordeei dagozkien eskumenak kontuan hartu gabe.

Hirugarrenik, SARS-CoV-2 birusarekiko **kalteberak diren langileak gaur, lehen txandan, sartuko direla lanera baieztatzeko balio izan zuen**, eta hori **onartezina iruditzen zaigu**,

besteak beste, aurretik esandakoa gezurtatzen duelako eta ez delako kontuan hartzen haien lanpostuetan dituzten baldintzak eta zereginen osasunean eragin dezaketen kaltea.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi EHUK haien **jardunerako lan-arropa erabiltzen duten langileak** (mantentze zerbitzuko langileak, kasurako) **bere etxera eraman dezala garbitzera nahi du**, hots, birusa etxera eramateko aukerari ateak parez pare zabaltzen dizkio, horiek garbitu eta desinfektatzea enpresaren ardura izan behar denean, noiz eta arrisku biologiko baten aurrean gaudenean. Zur eta lur geratzeko moduko “prebentzio” neurria, alajaina!

Halaber, **ez gatoz bat Administrazioak telelanaren eta kontziliazioaren aurrean duen jarrerarekin**; izan ere, adierazi duenez, **“nahitaezko betebeharrengatiko baimena”** lehen hiru egunetarako baino ez zuen eman. Hiru egun horietatik aurrerako egunak ere halakoak zirela defendatzeko bide posibleak aztertzen ari gara. Era berean, ulertezina da unibertsitateko langile batzuek ikasturtea amaitu arte UPV/EHUn telelana egin ahal izatea eta beste batzuek bigarren hezkuntzako ikasturtea amaitu arte soilik egin ahal izatea. Dirudienez, UPV/EHUK aitona-amonek haurrak zaintzea nahi du.

Espero dugu Lan Ikuskaritzak, EHUn lan-arriskuei buruzko legezko eta erregelamenduzko ez betetzeak kontuan hartuta, gure eskubideak defendatzearen aldeko hautua egitea. Edonola ere, **LABen ez dugu baztertzen gure eskubideak eta aldarrikapenak defendatzeko biderik.**